

1994ko irailak 30

248. zenb.

PRESS

# ARRASATE



**Dani Martin,  
Bosnian laguntzaile:**

**“Serbiarrei  
‘txarrak’ izatea  
tokatu zaie”**

AMORE EMANGO DUZU!



UDAZKENA

ART 8

Spek  
Benda



Iturriotz, 19

# OIARTZUN URRIAK 9



# INTSUMISIO EGUNA '94

**AUTOBUSAK:**  
**IZENEMATEA:**  
Ekaitz taberna  
Eicna Taberna  
Jaizale taberna  
Iire Liburudenda

Urriak 8: **BEZPERAN KONTZERTUA**  
Tapia & Leturia Band  
Lin Ten Taun  
Dr. Calipso  
Os Diplomaticos

Urriak 9:  
Zirkuitoa...  
3 Area...  
Ikuskizunak  
Fantaldiak

**OHARRA:**  
**"EMEN  
INTSUMISIOEN  
LAGUNAI"** kanpaina  
parte hartuaz emandako  
laguntza eskertu nahi die  
dendari eta tabernariei herriko  
mugimendu antimilitaristak.  
Mila esker

ASTEURU OSOAN KANPING ▲ ZERBITZUA

# Haur eta gazte:

**G**izaki osoak, helduak, orainean eta etorkizunerako nahi genituzke gure haur eta gazteak. Bizitza eman diegu. Heziera jatorra zor diegu. Izan ere giza-umeak ez dira gizaki izatera iristen heziera on bat ez bada medio. Heziera horren lehen ardura gurasoei eta sendiari dagokio, ondoren gizaritari.

Gaur egun, familiaren berplanteatzea dela eta, lehenbiziko urteetan izan ezik, gizariteak du indarrak nagusia. Gure gizartea, berriz, tankera berriak bilatzen dabil eta ez baldintza gizakioenetan, interes ekonomiko eta politikoen arabera baizik. Gizarte kontsumitzaile eta erabilkorra sortzen ari da.

Familiak eta beste heziketa bideak: Ikastola, Eliza eta hainbat erakunde, giza hezieraren erantzunkizuna jaso behar dute. Baina zer ari zaigu gertatzen?

Familia desorekatua arkitzen da; izan ere, helerazi edo eskeini behar dituen baloreak zalantzan ditu, lanaren eraketak eraginda, zailtasunak aurkitzen ditu seme-alabekin behar den denbora eta patxara aurkitzeko. Gure haurrak, batez ere, aiton-amonen, umezainen, haurtzaindegi, ikastetxe eta katekiesien, eskuetan daude. Guzti honen ondorioa ikusten hasiak gara, oraindik eta ikusteko gaudenak!

Gizartetik, gaurko baliobidetan jarraitzen duen bitartean, gauza on gutxi espero dezakegu. Hara hor familiaren eta heziketa erakundeen garrantziaren zergatia.

Guzti hauek etorri zitzaizkiten burura joan

zen asteazkenean San Frantzisko Xabier Ikastola berrituaren inaugurazioan. Baita zuzendariari esan ere: "Benetan ederra eta egokia deritzot egin duzuen berrikuntza. Gure garaietan harrapatu izan bagenu hola-ko eraikituz-antolamendua...!"

Baina ez ahaztu *ikasketak* bakarrik ez dutela gizaki berria sortzen, *Heziera* jator baten arabera dagoela Ikastolaren eta haurren etorkizuna. Zertarako nahi ditugu "teknika jakinduriaz" ongi hornitutako buruak, bihotzak eta sentimenduak, giza baloreak


landu gabe badauzkate?

Jakinduria bai, baina *heziketa* jator bat batez ere. Ia asmatzen duzuen *oinarrizkoetan*."

Ez zait sekulan ahaztuko zahar batek behin esan zidana: "Gizaki jatorrik ez badago, zenbat eta gehiago jakin eta lanpostu handiago eduki, okerrago gizartearentzat".

*Golfoak, hobe peoi injineru baino.*

**"SAGARRAGA"  
(JOSE MARI  
ASTIGARRAGA)**



## • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Ibxaro Zubillaga, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Jaxone Mendizabal eta Ikeme Altube (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karnele Perez, Sorginak, Kopi, Danel Gokolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Legedordialua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Joseba Vallés.

## HIES EKIMENA

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

## ARRASATE HOTELA



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16


## Memesa 79 42 22



Aldizkari honek  
Arrasateko Udalaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jaurilitzako Kultura eta  
Turismo Sailaren laguntza jaso du

**GATZAGAN,  
ERDI ERDIAN...**
**ZUHAITZ  
jatetxea**

**I  
R  
T  
A  
B  
E  
R  
N  
A  
T  
I**

Ferrerias kalea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 56 11

**VE ECUADOR**  
**Bidaiak**

Kontzeziño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06

**CRISTINA GARCIANDIA MUGICA**

**Dermatologia • Benereologia  
Medikuntza • Kirurgia**

**SAN MARTIN OSASUNDEGIA**

Ramon M<sup>a</sup> Lili, 2 Gral. eskuma BERGARA ☎: 76 59 39

••••

**Preso motak**

Manifestu ageografikoa, 1994ko irailaren 24koa; Mertzedeetako Amaren eguna, besteak beste preso guztien jaia.

Egun izentatu honetan, ohi dugun moduan lerro batzuk botako ditugu papere-ra.

Baina oso era berezian egingo dugu: Presoak espetxean ez daudenak direla pentsatuko dugu. Honelako gauzeekin jolasik ezin dela egin egia den arren, eta hori beherago jorratuko dugu, egia da kartzelan daudenek inoren lotsa edo norbere buruaren estima sentitzen dutena, "besteek", guk, ez dugulako mesede bat zer den ulertu: inolako hormarik ez dadila izan, eta ez horma fisikoak bakarrik.

Gai honi buruz gizarte laguntzaile batek esaten zidanez, edo gure elkarrizketan atera zenez, gizartea zirkulu konzentriko gero eta txikiagoetan batuaz doala eta nolabaiteko kartzela bihurtu eta prozesu itzulezin batean gero eta gehiago itozten gaitu. Eta une honetan drogaren gaia ikutzen dugu, baina gure egunerokotasuna itzultzen duten pautetako edozeinetara estrapola genezake hori, odol hotzez.

Gizarte batzuetan txindurriak jaten dira azido formikoaz, beste batzuetan

perretxikoak halako osagarriekin, beste batzuetan ardo edo sagardo edo garagardo-saldak hartzen dira, beste batzutan halako edo bestelako infusioak egiten dira, beste batzutan erre egiten da eta abar. Baina, beno, zeinek arautzen du zer gauza har daitezkeen eta zer ez, edo bi aspirina har daitezkeela eta bi besterik ezin direla hartu, edo hiru zerbeza eta hiru baino ez...? Eta kontua ez da txistetarako, txisteak ugari egon badaitezke ere; hori baino serioa baizik: Ez dago estipulatzailerik, eta horixe nahiko genuke beharbada, baina gu geu gara estipulatzaileak.

Izan ere, medikuak hankako behatz potolorako pastilak ematen badizkigu, egunero horretantxe jardungo dugu; baina inork ez diezagula ezertxo ere, medikua-ren agindua dugu eta. Baina gizajoren bat helburu berberarekin bat edo bi lortu nahian kioskoan ikusten badugu, auhena altxatzen dugu: hamaika ikusteko gara!

Eta gure inguruan gertatzen dena ikusteko ez da imaginaziorik behar, izan ere ez dugu atzeratu karne-tik: Zerbezaren kontsumoa kontrolatzeko talde batzuk eratzen dira, baina talde horiei ordaindu ahal izateko produkzioa gehitzea baino ez da egiten. Nola jaten da hori?

Baina, ikus dezagun: nora

joaten dira heroinak eta bere familiak egunero, zuzenean edo zeharka, sortzen dituen ehundaka milioi marko, libera edo dolarrak? Hau da, zuk har itzazu egunero zure ardo-txoak, zure kañatxoak edo hauts-talego pareta eta ahaztu gaitzazu eta ez gurekin sartu. Eta nire ustez ez du merezi korapilo horren gainean denbora eta papera luzatzerik.

Zerbait ikasi dugu guzti honetatik: Gaitza guztiona denez, ni ahalik eta ondoen giratzen naiz nire zatitxoarekin eta gainerakook, hor konpon. Polbora hariak adina aurrera egiten dugun hipokritak gara.

Argi dago askatasuna ulertzeko moduaren erlajatzeko etengabe horrek hartzaile bakarra duena: dirua.

Eta amaitzeko, bere garaian ingurukoei zenbat aspirina hartu behar zituen ez ziola inork esango adierazteko ausardia izan zuelako dago preso bat eta beste batek berriz, garbi ikusten du hori, baina ez da esaten ausartu. Bata altzairuzko hesi batzuen atzea eta bestea berriz aurrean. Hori dela eta, elkarri bizkarra emanda jar gaitzala eskatuko diogu Mertzedeetako Birjinari eta horrela, batak ere ez du burdinarik ikusiko.

**JOSEBA COSTANA**


(Erredakzioan itzulia)

**BURGALES JATETXEA**

**Jaki goxoak eta giro atsegina**


**Durana, 12  
ARETXABALETAKO**

# Nahikoa aparkaleku dago Arrasaten?



**Angel Fernandez Jubilatua**  
(72 urte)

Nire ustez ez. Kaleak kotxez beteta egoten dira, aparkaleku gutxi dago.



**Idoia Etxagibel Langilea**  
(28 urte)

Oraingoz behintzat bai. Roneoko aparkalekuaz, gainera, orain toki gehiago dago.



**Joseba Hernandez Langabezian**  
(28 urte)

Ez, gutxi. Herri guztian falta dira, erdialdean eta auzoetan.



**Arrate Madinabeitia Etxekoandrea**  
(54 urte)

Gutxi dago, bai erdialdean eta baita auzoetan ere. Parking-a dagoela badakit, baina sekula ez dut han aparkatu.



**Jose Garcia Langilea**  
(39 urte)

Egunak eta orduak eragina izaten dute. Jai egunetan, adibidez, erdialdean eta San Andresen toki gutxi egoten da. Beharbada, erosoegiak ere bagara.



**Idoia Errarte Fagorreko langilea**  
(27 urte)

Ez, eta gero eta gutxiago. Erdialdean bi aparkaleku kendu dituzte eta orain marra horiak ere jarri behar dituzte.



**Juan Ramón Mauleón Langabezian**  
(33 urte)

Gutxitxo, ezta? Auzoetan, gainera, toki gutxiago izaten da. Makatzena eta Santa Marinan batez ere.



**Isabel Argüello Langabezian**  
(29 urte)

Gero eta gutxiago. Astebukaeretan batez ere zaila izaten da aparkatzeko lekuren bat aurkitzea. Bestalde, Makatzenan, adibidez, oso toki gutxi egoten da.

**OSORIK  
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE



San Juan, 14 etxeba Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

**FEMME**

**Aukera bereziak  
Maritxurako**

Bruno Villarreal, 4  
(Gorbea kalearen perpendikularra)  
© (945) 24 85 04 GASTEIZ

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. ....79 53 00  
 Iguatorialdea .....79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) .....79 39 00  
 (emakumeak) .....79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua .....79 90 11

**Gurutze gorria**  
 Bergara .....76 55 76

**DYA**  
 Antzuola .....76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) .....79 13 57  
 (Txanda hartzeko).....77 03 46  
 77 07 21  
 Oñati .....78 08 52  
 Eskoriatza .....79 98 58  
 Aretxabaleta .....79 74 58  
 Aramaio .....(945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulanziaz .....45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oñati .....78 04 11  
 Bergara .....76 14 69  
 Arrasate .....79 14 39  
 Aretxabaleta .....79 10 52  
 Eskoriatza .....79 03 22

**Ertzaintza**  
 Arrasate .....79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea .....79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua .....79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .....78 28 00

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) .....79 09 00  
 Elektrizitate (Iberduero) .....12 01 62  
 Gasak .....900 40 05 23  
 79 78 44  
 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak .....79 12 22  
 P.E.S.A. ....79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza .....79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza .....79 81 57  
**Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....79 87 77  
 KIUB-OMIC .....79 51 55  
**Monterrongo liburutegia**  
 Monterron .....77 01 05

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 30**  
 Egunez eta gauzez: Corcuera. Musakola.

**Larunbata 1**  
 Egunez 22'00ak arte: Irizar. Erguin.  
 Gauzez: Mozos. Pedro Deunaren. Bergara

**Igandea 2**  
 Egunez 22'00ak arte: Amezua. Sta. Marina  
 Gauzez: Mozos. Pedro Deunaren. Bergara

**Astelehena 3**  
 Egunez 22'00ak arte: Ruiz. Maala.  
 Gauzez: Camacho. Oxiorondo. Bergara.

**Asteartea 4**  
 Egunez 22'00ak arte: Morales. San Andres.  
 Gauzez: Puy. Barrenkale. Bergara.

**Asteazkena 5**  
 Egunez 22'00ak arte: Azkosaga. Ferrerías.  
 Gauzez: Guallar. San Antonio. Bergara.

**Osteguna 6**  
 Egunez 22'00ak arte: Español. Iturriotz.  
 Gauzez: Estella. Matxiategi. Bergara.

**30 OSTIRALA**

**ZINEA**  
 "Mentiras arriesgadas" 7etan eta 10etan.

**GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA**  
 Musakolako jubilatuen etxean, eguerdiko 12etatik ordubata arte.

**GARAGARTZAKO JIAIK**  
 7etan etxefleru eta bonba japoniarren jautiketara. 7.15etan kalejira buruhaundi eta dultzaineroek alaituta. 8etan Ines eta Naiara trikitilarietara erromeria. 10etan Eguzki taldearekin dantzaldia.

**YOGA IKASTAROA**  
 Garapen pertsonala, gorputz, talde dinamika eta laguntza teknikak. Ostiralero goizez, 9.45etan eta arratsaldez 6.45etan.

**1 LARUNBATA**

**ZINEA**  
 "Mentiras arriesgadas" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

**GARAGARTZAKO JIAIK**  
 11.30etan meza auzoko hildakoen alde. Ondoren Txikitxu taldearekin euskal dantzen erakusketa. 5etan pottokak, oilarrak, euskal jolasak. 6etan bikotearen dantza lehiaketa. 7etan erromeria. 10etan artifiziozko suak. 11etan Txinparta taldearekin dantzaldia. Arratsaldeko 6etatik 10.30ak arte, Garagartzako auzoetxean buzkantzak tomatearekin salgai egongo dira.

**MANIFESTAZIORAKO AUTOBUSAK**  
 "Euskaldunak direlako presoak euskal herrira" lemapean-Sagrado Corazonetik manifestazio nazionala, Bilbon arratsaldeko 5.30etan. Joatea nahi duzuen guztiok Irati, Etxerat edo Ekaitz tabernetan eman dezakezue izea. Irteerako ordua: arratsaldeko 4etan Arbolapetik. Amnistiaren aldeko batzordeak antolatuta.

**NOBENAIXUE**  
 Maritxu Kajoi Nobenaixue arratsaldeko 6.30etan.

**ANTZERKIA**  
 "Hala bazan ez bazan sar dadi-la..." antzezlan, In Franganti taldeak eskainia. Amaian antzokian 10.30etan. Sarrera: 700 pta, gazte-txartelarekin 500 pta.

**2 IGANDEA**

**ZINEA**  
 "Mentiras arriesgadas" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

**HAUR-ZINEA**  
 "Atrapado en el tiempo" Amaia antzokian arratsaldeko 5etan. Sarrera: 200 pta.

**KILOMETROAK**  
 Legazpin "Kilometroak". AEDK autobusak antolatu ditu. Irteera: goizeko 9etan Zaldibartik.

**KILOMETROAK**  
 Aretxabaletako Loramendi taldeak kilometrotara joateko autobusak antolatu ditu. Ordua: goizeko 8,45etan AZBen.

**GARAGARTZAKO JIAIK**  
 12etan meza nagusia. 12.30etan vermout dantza. Ordubatean haur jolasak. 2.30etan herri-bazkaria. 6etan txinparta taldeak alaituta erromeria.



**GARAGARTZAKO JIAIK**  
 Ostegunetik domekara bitartean Garagartzan San Migel Jaik.

**NOBENAIXUE**  
**Maritxu Kajoi**  
**Nobenaixue**  
**larunbatean**  
**arratsaldeko 6.30etan.**  
**Betiko lekuan.**



**3 ASTELEHENA****ZINEA**

"Mentiras arriesgadas" 7etan eta 9.30etan.

**GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA**

Gesalibarreko Alkatetzan, eguerdiko 12etatik 12.30ak arte eta Garagartzako Alkatetzan 12.30etatik arduata arte.

**YOGA IKASTAROA**

Yoga haserako ikastaroa. Klaseak astelehen eta asteazkenetan emango dira, ordu-tegia: goizez 9,45etan; arratsaldez 6.30etan eta gauzez 8.30etan.

**TAILA IKASTAROA**

Aretxabaletako "Okila" taldeak taila ikastaroaren aurkezpena egingo du 6etan, Okila taldearen tailerlean, Lora-mendin.

**YOGA IKASTAROK**

**Bi Yoga ikastaro antolatu dituzte. Ostiralean Garapem pertsonaleko ikastaroa hasiko da eta astelehenean berriz, haserako mailako ikastaroa.**

**FAMILI ETA GIZARTE ZENTRUAREN IKASTAROK**

Famili eta gizarte heziketarako zentruak zenbait ikastaro antolatu ditu, gazte eta helduentzako. Tailerrak, osasun alorreko ikastaroak, alor sozio-kulturalekoak besteak beste. Goizez, arratsaldez eta gauzez antolatu dituzte ikastaroak. Matrikula zabalik dago, informazio gehiago nahi izan ezkeror 790459 zenbakira deitu.

**4 ASTEARTEA****ZINEA**

"Mentiras arriesgadas" 5etan eta 7.30etan.

**GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA**

Udalako eskoletan 12etatik 12.30etara eta Meatzerrekan 12.30etatik orduata arte.

**HITZALDIA**

"Jaiotzen kontrola ala aberastunaren banaketa?". Hizlaria Malén Vilches. Monterronen 7etan. Emakumeen Asanbladak antolatuta.

**HITZALDIA**

"Emakumearen egoera gaur egun Euskal Herrian". Hizlaria Alazne Eizagirre soziologo. Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruak antolatuta. 4etan.

**EUSKADI GAZTEA MAKETA LEHIAKETA**

Euskal Herriko talde eta bakarlari guztiek parte hartu ahal izango dute. Beharrezkoa izango da gutxienez hiru kanta jasotzen dituen zinta bat bidaltzea. Zintak, beharrezko zehaztasunez urriaren 30a aurretik bidali beharko dira antolakuntzara: Euskadi Gaztea IV. maketa-lehiaketa, Euskadi Irratia, 1-1goa. 20.006 Donostia.

**5 ASTEAZKENA****GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA**

Bedoñako Alkatetzan 12etatik 12.30ak arte.

**HITZALDIA**

"Biztanlego-politika eta arrazismoa". Hizlaria Angela M<sup>o</sup> Da Silva. Monterronen 7etan. Emakumeen Asanbladak antolatuta.

**IPIUIN KONTALARIA**

Antxon Iruña ipuin kontalaria 5.30etan Sta Marinar eta 6.30etan Monterronen.

**6 OSTEGUNA****HITZALDIA**

Gaia: "Hezkidetzak: sexu-berdintasunerako hezkuntza" Monterronen hitzaldi aretoan, 7etan. Hizlariak: Zuriñe del Cedro eta Pilare Markuerkiaga. Hezkuntza eta Emakumearen Udal sailek antolatuta.

**ADINEKOEN OPORRAK**

Jubilatuentzat opor egitaraua prestatu du Inersok. Oporlekuak: Balearsetara 15 egun urritik apirilera (26.260pta). Andaluzia, Kaalunia, Valencia edo Murtzia 15 egun (22.630 pta). Kanarias irletara 8 egun apiriletik maiatza arte (24.400 pta). Kultur zirkuitoak ( Madrilera) 8 egun apirila, maiatza eta ekaina (13. 680 pta). Programa hauetan parte hartzeko baldintzak: 65 urte izatea edo pentsioduna izatea, gaixotasun kutsagarririk ez izatea, baliatua izatea eta ezarritako ordainketa egitea.

“Gestiogintzan ez dago miraririk, formula egokiena ahalik eta jende gehienen partehartzea da. Beharbada, Arrasateko udalean hori lortu dugu, alderdi ezberdinetako jendea eta politikari eta teknikarien arteko elkarlana. Horrek gehiago laguntzen du gestiogintzan pertsona jakin batek baino.

(Hauteskunde ostean Arrasateko Udalarekin zer gertatuko den galdetzean) Udal legegintzaldi honek irauten duen bitartean ikusiko dugu Gasteizko Legebiltzarrak zer ematen duen, hura eta udalaren arteko bateragarritasuna posible den ikusteko. (...)

(IRArean suetenaren eraginaz) Lehen ondorioa da badagoela zer ikasirik irlandar eta ingelesek eraman duten elkarriketa prozesutik. Hau ikusita, Estatu espainiarreko politikarien jarrerak, Bellochek esandakoak eta abar, benetan arbuigarriak dira. Politikariak bizi den egoerari irtenbideak bilatu behar dizkio, eta inoiz ezin dira bakoitzak nahi dituen baldintzak ezarri. (...)

Mapa politikoaren aldaketaz ezegonkortasuna etor daiteke. Aukera ona izan daiteke euskal alderdiek elkarrekin zerbait pentsatu eta egiteko.

**Xabier Zubizarretak**

## ARGIA

(Arriortua Arrasatera etorri zenekoa)

“Ez zen Arriortuarik ageri. Bere puntualtasun alemaniarra zalantzan zegoen eta bateren batek, berandu zetorrela eta, produktu alemaniarren kalitateaz barre egin zuen, Kanpazar igotzean bere AUDIari juntakulata izorratuko zitzaiola esanez.

Baina iritsi zen. Ordubate beranduago, baina iritsi egin zen. Bere errugabetasuna frogatzeko, Fagor Arrasateko prentsa bat zeraman garraio berezietako kamioiak Kanpazarren sortu zuen kaosa aipatu zuen atzerakizunaren arrazoi moduan; eta hori ez da dena, berak orduan ez zekien arren, garraio hura Wolkswagenerako zen eta.”

**Wolkswagener**

## Zer eskaini du Gurutze Gorriak 10 urtetan zehar?



**Karmelo Bergaretxe**

Arrasateko Gurutze Gorriko lehendakaria

Orain dela 10 urte, Gurutze Gorria antolatu nahian hasi ginen lagun talde bat eta hasiera batean lokala Arrasateko eskualde ospitalean eduki eta gero, azkenean San Prudentzian kokatu ginen. Ordu-rako, Gipuzkoako beste hainbat herritan bazegoen Gurutze Gorria baina ez zegoen horrelako zerbitzurik Bergara, Oñati eta Arrasate ingururako.

Guztira, urte guzti hauetan zehar 7.000 baino larrialdi gehiagotan izan gara eta gainera, beste era bateko zerbitzuak ere eskaini ditugu. Gutxigora behera, 70.000 lagunengana zuzendua dago Gurutze Gorriaren zerbitzua eta egia esan, daukagun materiala ez da biztanleria guzti horri aurre egiteko gai. Azkenaldian, Jaurlaritzatik dirulaguntza jasotzen hasi gara baina ordainez hainbat zerbitzutara joateko eskatzen digute eta jakina, orain 2 anbulantzia bakarrik ditugunez, ezin ditugu eskari guztiak bete.

Esan bezala, Gurutze Gorriak zerbitzu desberdinak eskaintzen ditu: istriputan izaten gara, erreskate lanak ere egiten ditugu eta ekintza sozialak ere burutzen dira. Baina aurrerantzean zerbitzu sozialei bultzadaxo bat eman nahiko genieke batez ere. Arrasateko etxe batzuetan jarritako teleasistentzia zerbitzua indartu nahiko genuke, adibidez. Eskaintza hori, bakarrik bizi diren pertsona nagusiei zuzenduta dago eta kontua zera da, beharren bat dutenean edo gaizki sentitzen direnean, aldean eramaten duten aparailua martxan jarri eta berehala dei hori Donostiako zentralera doa. Ondoren abisua ematen digute eta hala behar izanez gero, pertsona horren etxera joaten gara.



# BELUN TABERNA

*San Miguel zoriontsuak  
opa dizkizuegu*

Garagartza auzoa, z/g. Tfnoa: 79 61 14  
ARRASATE


Udalaitz, S.A.



**ADI!**  
2. eskuko  
autoak



|            |            |
|------------|------------|
| R 21 GTS   | SS-5636-Z  |
| Citroën AX | SS-3583-AK |
| Audi 90    | SS-1541-AB |
| Golf       | SS-4821-AD |

Musakola auzoa, z/g  
Tfnoak: 79 88 01 - 79 21 25



**Gurutze Gorria**

Uztaila eta abuztuan zehar, honako zerbitzuetan eskeini zuen laguntza Deba Garaiko Gurutze Gorriak. Uztailean eta Arrasateri dagokionez, 6 kirol istriputan, 4 trafikoko istriputan eta bestelako 20tan izan zen Gurutze Gorria. Abuztuan, berriz, 2 kirol istriputan, 2 oinezko istriputan eta 15 bestelakotan.



**EAren ekitaldiak Arrasaten**

Alderdiaren sorreraren 8. urteurrena eta Alkartetxearen 6.a ospatzeko, EA alderdiak hainbat ekintza egin zituen zapa-tuan. Goizean, hildako militanteen oroimenezko meza izan zen eta ondoren, datozen hauteskundeetan hautagai izango direnek ekintza politikoa egin zuten. Garaikoetxea, Irizar, Oliveri eta Iraragorri izan ziren, besteak beste, hizketan. Eguerdian, berriz, 140 lagun inguru batu ziren bazkarian eta 80 urte-tik gorako emakume gudariei egin ohi dieten omenaldiaren barruan, Fani Garai arrasatearra omendu zuten

**Gose Grebaren amaiera**

Gose greban egon diren sei arrasatearrek joan den larunbatean bukatu zuten baraualdia. Zapatu arratsaldean, Sebero Altube plazan enkartelada egin ondoren, omenaldia egin zieten grebalariei eta ekintza horren ostean manifestazioa ere egin zen. Gose grebaren bidez, presoekiko elkartasuna adierazi eta euren eskubideak errespetatu daitezela eskatu nahi izan dute.

**Emakumea hil**

Astelehenean, goizeko 6.30etan, Q.E.P inizialdun

62 urteko emakumea, 7. pisutik jausi eta hil egin zen. Istripua Errebuelta kalean gertatu zen eta epailea eta medikua azaldu ostean, gorpua Zumarragako ospitalera eraman zuten autopsia egiteko.

**Orkatz taldearen ekintzak**

Orkatz Skaut taldeak gaztetxoentzako jaiak antolatu zuen zapatu arratsaldean. Txikienek jolas desberdinetan parte hartzeko aukera izan zuten Herriko Plazan. Ekintza horren helburua, gaztetxoak Orkatz taldera erakartzea izan zen.

**JAIOTZAK**

- Leire Murillo Letona. Abuztuaren 25ean.
- Maider Domingo Altuna. 29an.
- Maitane Sanchez Ignacio. 28an.
- Eider Del Campo Aspiazu. 31n.
- Hodei Alvarez Casquete. Irailaren 2an.
- Amaia Aranzabal Uriarte. 6an.
- Patricia Hidalgo Arregi. 4an.
- Adara Alfonso Boubeta. 7an.
- Arane Alfonso Boubeta. 7an.
- Julen Altuna Perez de Ciriza. 7an.
- Andoni Uribesalgo Abasolo. 10ean.
- Ruben Perea Gomez. 24an.
- Julen Eizagirre Soraluze. 12an.
- Oihana Gozalez Corbella. 16an.
- Unai Heriz Iturbe. 14an.
- Ane Lorenzo Aspe. 19an.
- Ane Atando Azpilikueta. 25ean.

**EZKONTZAK**

- Juan Luis Paunero Bejerano & Belen Lopez de Ipiña Alava. Uztailearen 30ean. Elizaz.
- Juan Maria Valor Fernandez & Maria Jesus Guerrero Duque. 30ean. Elizaz.
- Juan Luis Ochandiano Arana & Miren Idoia Etxegibel Iturbe. 31an. Elizaz.
- Francisco Jabier Goñi Cogeces & Miren Idoia Arabaolaza Amezua. Abuztuaren 14an. Elizaz.
- Roman Angel Gorosabel Iriondo & Ana Jesus Espinosa Arrotxa. Irailaren 17an. Elizaz.
- Ignacio Ibahe Ortueta eta Arantzazu Okina Etayo. Irailaren 17an. Elizaz.

**HILDAKOAK**

- Bonifacia Azkarreta Azkarreta. Abuztuaren 16an. 82 urte.
- Eugenio San Vicente Mujika. 20an. 89 urte.
- Maria Lonbide Peña. 31an. 90 urte.
- Maria Guadalupe Hernandez Delgado. Abuztuaren 26an. 83 urte.
- Jose Francisco Eizagirre Irigoien. Irailaren 1ean. 70 urte.
- Margarita Morua Iñurigarro. 6an. 94 urte.
- Aurelia Barrio Elvira. 12an. 57 urte.
- Josefa Zubizarreta Zuazua. 12an. 99 urte.
- Angel Martin Martin. 13an. 78 urte.

**Monte taberna**

Maalako arrabala, 11  
Tfnoa: 79 20 56

**UDALAITZ TABERNA**

Erdiko kale, 3 ARRASATE  
Tfnoa: 79 20 61


**ZUBIZARRETA TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 15 65

**Begoña lurrindegia**

**Drogeria Jostailuak Opariak**

Gipuzkoa Etorb. 33,  
Musakola Auza,  
Tfnoa: 79 03 73



\* JUAN JOSE GOENAGA

## Nikodemoren sindromea

**Nikodemo** pertsonaia sinpatikoa da. Judutar eskolatu, eta, dirudenez, *Jesusekin* interesatua. Gauez joan ohi zen Jesusengana, Harekin hitzegitera. (Jn. 3,1)

Pertsonaia paradajikoa. Ikasia, eta beste judutar batzuen antzera, ba zuen sinpatia eta sinestu egin zion *Jesusi*, baina, "etziran agerian ikasle bezala agertzen fari-seoengatik eta sinagogatik bidaliko zituzten beldurragatik" (Jn 14,42).

Hori da Ebangelioaren testoak dioena.

Gaurko pentsamoldean "sinfromea" deituko genioke joera honi eta "sindromea" gizaldiz gizaldi transmititzen da. Paradigma eta interpretazio molde izatera iristen da eta konportamendu estereotipoa.

Ez dut testoaren esegesirik egingo. Komentario bat bakarrik.

Gure gizartean, Leintz bailaran, ez dago modan inor kristau dela esatea. Zer nolatan iritsi den gure gizarte hau hortara ez da artikulo baten adieraztekoa. Zer ikusirik izango dute Elizaren beraren

historiak, bizi dugun "tribilizazio" uneak eta denon artean egiten ari garen kultura lehor, etorkizunik gabeko eta kontradikzioz betetako honek eta baita norberaren ausardia edo ausardia ezak ere.

Gaur, "agnostiko" dela esatea dago modan. Inforekin fiatzen ez geran momentuan ez gara fiatzen ezta geure barneko "sentimenduekin" eta ezta esaten diguten Jainkoarekin ere. Eta orduan ez gara atrebitzen afirmazio borobilak egiten, eta oinarrizko baietak edo ezetak onartzen. Hori dela, gainera, giza kondizioari dagokion konportamendua esaten dugu.

Gaur Leintz bailarako kristau arrunta erdi lotsaz beterik bizi da, eta esistitzeko "permisoa" eskatzen beza-

.....  
**"Gure gizartean,  
 Leintz bailaran, ez  
 dago modan inor  
 kristau dela  
 esatea".**

la bizi behar duenaren sentimendua barneratuta dauka. Eta hau ez da musulman herrian gertatzen, elizaren babesetik bere "aggiornamendu" sozio-ekonomikoa egin duen Bailara baten baizik.

Hortik datorkio kristau izan nahi duenari halako "ezkutuan" ibili nahia. Konportamendu honi deitzen diot "Nikodemoren sindromea". Bistan dagoenez, ez da oraingo fenomeno. Zaharra da, orain 20 mende gertatu zen *Jesusekin* Berarekin.

Gaurko kultura berriak, sortzen ari garen kulturak, leku gutxi uzten dio Jainkoaganako Fedeari eta fede hortan sortzen den giza-bizitzari. Edo sakonago joaz, tajuzko giza-bizitza berari uzten al dio lekurik?

Gazteen subkulturaren ikusten da joera hau nabarmenago. Arrasateko gazte gehienek lotsa sentitzen dute eta aurpegia gorritzen zaie norbaitek kristau direla esaten badie. Hortan gaude. Hortara iritsi gara. Norabidea nondik?

\* APAIZA

## USTEAK USTE

### AZKEN METROAK

**Hauteskunde garaia. Duela hilabete pare bat aurrekanpaina sufritzen hasi ginen. Motorrak berotuta daude dagoeneko. Hauteskundeak gertu daudela jakiteko, nahiko da aste hauetan entzuten ari dena ezagutzea. Edo lau urte hauetan ikusi ez dena ikustea. Hona hemen adibide batzu.**

**Ezkondurik egondakoak, haserretu eta ezin ikusi azkenengo aste hauetan. Bestalde, Euskadik Espainiarekin duen gatazka mahai gainean jarri digute azken egunotan, sekulako indarrarekin gainera. Abertzaleen arteko kolaboraziorako hainbat dei han eta hemendik. Pakea lortzeko bide egokiak, posibilitateak, denon ahoan. Indarkeriaren oporrak ere bai. Eta promesak, etorkizunerako promesak. Gauza denen gainetik, pakearen beharra. Elkarrizketa baten beharra pake hori lortzeko. Laster izango dugu ba gurekin hiritarron eguna, hauteskudeen eguna. Bitartean, karrera horren azken metroak jasan behar.**

JOSE RAMON ELORTZA

**IXOKO  
TABERNA**  
Gure berezitasunak  
pintxo eta  
mokau gozoak

**Txitxinpe**  
Berezitasunak:  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak  
Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

**beatriz**  
oinetakoak eta  
poltsak  
Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**M  
ARENAZA**  
Bizkai, 1 ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 08 07



Erdikaldean eratzen diren auto pilaketak konpontzeko, marra horien sistema jarriko da.

## Aparkaleku gutxiago, baina parking-a erdi hutsik

Azkenaldian Arrasate erdialdean gero eta aparkaleku gutxiago dago batetik, S.F.X ikastolak Ferixalekuan duen eraikinaren aurrean autorik aparkatu ezin denez eta bestalde, Gurea zinema zegoen tokian etxebizitzak egiten hasi direnez.

Hala ere, eskasia horrek ez du Lau Bideko parking-ean auto mugimendu handiagoa eragin. Aste osoan zehar gutxiago behera 70 auto inguru hurbiltzen dira aparkaleku horretara. Ostiral goizetan izaten da auto mugimendu handiena eta arratsaldeko 6etatik aurrera gainontzeko egunetan. Parkingeko 160 aparkalekuen erabilera gehitzeko, zapatutan goizaldeko 3ak arte zabaltzea eta domeketan itxita edukitzea pentsatzen ari dira arduradunak. Bestalde, baliteke Maritxu Kajoi egunean zehar 24 orduz zabalik izatea ere.

### MARRA HORIAK

Nahiz eta Lau Bideko aparkalekuak orain arte "bisitari" gutxi izan, laster gehiago erabiltzen hasteko beharra izango da. Hemen-

dik gutxira, zamaketara bakarrik zuzendutako lekuetan marra horien sistema jarriko da erdikaldean. Dagoeneko marrak eginak daude eta erabiltzen hasteko azken orduko lan batzuk egitea baino ez da falta. Marra horiak honako toki hauetan jarriko dituzte: Otalora kalean bi tokitan, Olarten beste bitan, Maixu Aranon, Garibai Etorbidean bi lekutan, Zerkaostetan bakarrean eta azkenik Kontzezinon beste bitan.

Jose Luis Etxebarria, Arrasateko Udal-tzain buruaren esanetan trafikoa arautzea eta erdikaldean eratzen den auto pilaketa gutxitzea da asmoa. Sistema berria goizeko 9etatik ordu batera eta 4etatik 7etara izango da indarrean eta gainontzeko orduetan normal aparkatu ahal izango da. Bestalde, zamaketa lanak 15 minutuko epean egin beharko dira.

Bukatzeko, Azoka kalerako neurri bereziak onartu direla ere esan behar. Asteazken eta ostiraletan, azoka egunetan, goizeko 6etatik eguerdiko ordubiak arte ezin izango da kale guztian autorik aparkatu.

### Hauteskundeak udaletxean

Astelehenean, hauteskunde sindikalak egin ziren Arrasateko Udaletxean. Aukeratu behar ziren 10 ordezkarietatik, LABek 5 lortu zituen, ELAk 4 eta ESK-CUISek bakarra. Nahiz eta LAB irabazle atera, boto kopuruari dagokionez ELAk gehiago lortu zituen. Aurrez, 90ean egin ziren hauteskundeak eta orduan LABek 6 ordezkari lortu zituen eta ELAk 2.

### Nazioarterako laguntza

Aurten sei izan dira, nazioarterako lankidetzaren programaren barruan Udalean proiektuak aurkeztu duten taldeak.


Proiektuetariko bat "3. mundua eta Bakea" taldeak bidali du eta bere programa aurrera eramateko, 650.000 ptako dirulaguntza eskatu du. Bigarrena Euskal Fondoak aurkeztu du eta horre, 760.000 pta eskatu ditu. Hirugarrena Mugarik Gabe taldeak, 1.512.000 ptako eskaria eginez. Laugarrena Oskar Romero Batzordeak eta horrek ez du zehaztu zenbateko dirulaguntza beharko lukeen. Beste bat, Mugen Gainetik taldeak bidali du, 850.000 ptako laguntza eskatuz. Manos Unidasek, berriz, 1.500.000 ptako eskaria egin du. Urriaren bukaerarako erabakiko du Udalak, 3 miloitako dirulaguntza zein talderen artean banatuko duen.



INFORMATIKA ZERBITZUAK

LORAMENDI, 7 BEHEA ARRASATE, ☎ 77 12 33

- NEURRIRA EGINDAKO PROGRAMAZIOA
- EKIPAMENDU INFORMATIKOIA
- ZERBITZU TEKNIKOIA



PEÑAKOBA

Zarugalde, 46  
Tfnoa: 79 29 93  
ARRASATE  
Lizaur Arkitektoa  
Tfnoa: 78 05 60  
ONATI





Zaldibarko ikastetxean ematen dira Lanbide Hastapeneko eskolak.

## “Langai” elkarteak eramango du Lanbide Hastapenaren ardura

Ikasturte honetan hasi eta 1999ra arte, “Langai” izeneko elkarte arduratuko da Lanbide Hastapeneko programa antolatu eta garatzeaz. Eratu berri den elkarte, orain arte Lanbide Hastapenean lanean ibilitako 10 irakasle osatzen dute (hauetariko bat ez da “Langai”koa) eta Deba Garaiko Mankomunitateak programa hori talde bati subkontratatzea aurrikusi zuelako pentsatu zuten irakasle horiek “Langai” eratzea.

Lanbide Hastapeneko programa jarri zenean langileak Mankomunitateak kontratatzen zituen baina 92an Eskoriatzako Magisteritza Eskolako irakasle talde batek hartu zuen ardura eta aurrikusita zegoen beza-

la, aurtengo uztailean programa lehiaketara ateratu zen. Lehiaketara “Langai” elkartearen proiektua bakarrik aurkeztu da eta asteazkenean egin zuen bileran, ardura elkarte horri ematea erabaki zuen Mankomunitateak. Kontratua bost urterako izango da baina urtero berrituz eta esan bezala, Mankomunitateak jarraituko du programaren titular izaten.

Atzo bertan hasi ziren eskolak, 94-95 ikasturtean Lanbide Hastapenean ikasiko duten 89 ikasleentzat. Programan, 16 urtetik 18 urtera bitarteko gazteek ikasten dute eta helburua, ikasleei lanbide desberdinetan aritzeko eta prestatzeko aukera ematea da.

## Arrasate-Bergara Autobiderik ez

Gipuzkoako Diputazioak indargabe utzi du Arrasate-Bergararainoko Autobidea egiteko Euroestudios enpresarekin 1992an sinatu zuen akordioa. Foru Aldundiak Uztailearen 26an hartu zuen erabaki hori asteleheneko gobernu batzordean eman zen ezagutzera.

Diputazioaren iritziz ezin dira bi proiektu egin, hau da, batetik Euroestudiosena (Bergara eta Arrasate arteko autobidea) eta bestetik Debasarena (Maltzaga-Urbina ardatza). Proiektu hori kontratatu zuenetik ikerketak egin dira eta ondorioz 10 miloi gastatu dira. Diputazioaren erabakia ezagutzera eman zenean, berriz ere eztabaida piztu zen udalbatzako alderdi desberdinen artean. HB eta EAren ustez, atzetik autopista egiteko nahia dagoela erakusten du horrek eta Diputazioari beren desadostasuna adieraziko ziotela adierazi zuten. EAJren iritziz, berriz, Diputazioaren asmoa jakinaraztea baino ez da.

 **CIM**  
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

**ALEMANA**

**Ezkaintza berria  
Jatorrizko irakasleak  
Prezio bereziak  
Informa zaitez!**

AHIZKE S. KOOP

Araba etorbidea, 4 20500 ARRASATE ☎ 79 03 12

AHIZKE S. KOOP

Olakua, 14 20560 OÑATI ☎ 71 60 00

# Consulting Zubizarreta izango da Zerrajera eta Transformadoseko gestorea

Azken hilabetetan gestoreak bilatzen aritu eta gero, azkenean Zerrajera eta Transformadosen arazoan murgilduta dauden sindikatuek aurkitu dute bi enpresok zuzenduko dituen gestore taldea. Consulting Zubizarreta da talde horren izena eta besteak beste, auditoria eta enpresa gestio zerbitzuak eskaintzen ditu.

Konsultorak, Gasteiz, Donostia eta Bilbon ditu bulegoak eta bertako ardura eramaten dutenen artean badaude hainbat arrasatear. Konsultoraren zuzendari orokorra, Vicente Zubizarreta, Garagartzakoa da eta Gestio Zuzendaria ere, Jesus Romeo, arrasatearra da. Taldean Cerrajera eta Transformadosen egoera ondo ezagutzen dutenak daudela esan daiteke, beraz.

Hasieran, bidegarritasun plana egitea izango da Konsultoraren lana. Bi enpresak



Hasieran, bidegarritasun plana egitea izango da Konsultoraren lana.

errentagarriak izan daitezten diru aldetik zenbateko beharra dagoen aztertzeaz gain, soberakin eta pentsionistei ordaintzeko zenbateko diru-

tza beharko den baloratu beharko dute. Horretaz gain, zenbat laguntzako lana izango den ere ikertu beharko da. Gaur egun Zerrajerak 82 lan-

gile ditu eta Transformadosek 94, baina seguruenik zaila izango da lanpostu guztiei eustea, beraz soberan zenbat langile dauden zehaztu beharko dute.

Baina garbi dago, bi enpresok dirua behar dutela aurrera jarraitzeko. Horregatik, baliteke ondarearen zati bat saldu behar izatea. Udalak, inguru horretan CEI (Enpresa Berritzaileen Zentrua) edo antzeko zerbait jartzeko interesa daukanez, gestore taldea negoziaketetan hasiko da Arrasateko Udalarekin. Bitartean, aurrera jarraitzen dute orain dela hilabete batzuk hasi ziren negoziazioek eta asteazkenean beste bilera bat izan zen Hazienda, Gizarte Segurantzza, sindikatu, Korporazio eta Eusko Jaurlaritzaren artean. Oraindik, bulegoak norentzat izango diren argitu beharra dago eta zorraren arazoa ere lotu gabe dago.

# Debasak azalpenak eman ditu Maltzaga-Urbina inguruan

Ardatzaren inguruan hainbat azalpen egiteko, idatzia kaleratu du, Debasak, Eusko Jaurlaritza eta Araba eta Gipuzkoako diputazioek, Maltzaga-Urbina ardatzaren inguruko proiektua bultzatzeko eratu zuten erakunde publikoak. Debasaren esanetan, bere asmoa herritarrek Interbentzio Gune Partehartzaileetan eman zuten iritzia kontutan izatea da. Emaizta horren arabera eta Debasaren ustez, errepide azkarra egin eta oraingoa berritu beharko lirake. Finantziazioari dagokionez, mistoa izan beharko luke eta ingurugiroa ere kontutan izan behar dela aipatzen



Debasaren esanetan, IGPtako iritzia kontutan izango du.

du. A-8a ez luzatzeko erabakia ere kontutan izango duela esaten du Debasak. Oraingo errepidea hobetzeari dagokionez, idatzian adierazten denez, dagoeneko proiektua egiten ari da injineru talde bat eta azaroaren bukaera alderako gertu izango ei da gaurko bidea hobetzera zuzendutako proiektua. Trenbide zaharra oinezko eta txirrindularientzat berreskuratzea ikertzen ari direla ere aipatzen da.

Bukatzeko, Maltzaga-Urbina ardatzaren aurreproiektua gertu denean herritar eta erakundeei alegazioak aurkezteko aukera emango zaiela adierazi du Debasak.



**Zuriñe Velez de**

**Mendizabalek** aurtengo Ur

Skiko Espainako txapelketan brontzeko bi domina lortu ditu. Castelldefelseko Kanal olinpikoan jokatu zen txapelketa eta slalom eta irudietako espezialitateetan igo zuen Zuriñek podiumera. Zorionak!

Zer egiten ari dira argazki-koak? Kamisetak tintatzen ari dira, jakina. Gazte hauek institutoko ikasleentzat Txatxilipurdik bultzatu duen "Bidean" proiektuan dabilta eta

Nafarroa Oinezera joateko kamisetak tintatu zituzten. Ekintza ugari egiten dituzte urtean zehar eta kamisetak tintatzea horietariko bat izan zen.



Alderdi eguna ospatu zen domekan Salburuan. Arrasateko EAJkoak bertan egon ziren eta urtero moduan txozna jarri zuten. Txoznan saltzeko 100 kg patata, 50 kg hegaluze, 1000 solomo xerra, 100 kilo fruta, 50 kg buzkan-tza, beste horrenbeste txorixo, 200 litro salda eta 100 litro kafe eraman zituzten eta dena saldu zuten konturatu gabe. Arrasateko txozna, **Jose Antonio Ardanza** Lehendakariak eta bere emazteak, **Gloria Urteagak** ere bisitatu zuten.

**GORKA**  
ILEAPAINDEGIA

**SOLARIUMA**

Ferrieras, 35 ARRASATE  
Tfnoa: 77 13 78

**PEUGEOT**  
Salmenta eta  
zerbitzua

**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**


Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

**"PAL"**

burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99




maritxu kajoi 94  
urriak 7  arrasate

Maritxu Kajoi eguna iragartzen duen kartela dugu irudikoa; dena prest dago txikiteroen egunerako. Datorren ostiralean arrasatearrak

“galaz” jantziko dira, hain sonatu egin den Maritxu Kajoi eguna ahalik eta ondoen disfrutatzeko.

**Non dago Maritxu? Aste-bete falta zaigu Maritxu Kajoi eguna ospatzeko eta Maritxu ez dago bere lekuan. San Juan Bataiatzailearen elizaren konponketa lanak direla eta, Maritxuren irudia bertatik kendu egin dute; dena dela, espero dugu urriaren 7rako Maritxu bere tokian egotea eta miraria egiteko gertu gainera. Edo agerpena bera ote da miraria?**




## IZEN PROPIOAK

● **Gorka Etxabe** 22 urteko atxabaltarra izango da “El Mundo” egunkariko Arrasateko kirol berriemailea. Saskibaloia eta futbolaren inguruan idatziko du. Gorka kazaritzaiko bigarren maila ikasten ari da Leioan.

● **Joseba Larrinagak**, 26 urteko atxabaltarrak, Elbarrituen munduko maratoian 2. postua lortu du Berlinen. Albazeten jokatu ziren Espainako txapelketetan lehen postua lortu zuen 800 metro eta 1.500 metrotan. Josebak Atxabaltako Kirol-etxean egiten du lan.

● **Anuska Ezkurak**, 20 urteko arrasatearrak, PNV-EAJko hauteskundeetako bideoan abesten du. Anuskak Goikobalu abesbatza kantzatzen du eta Goikobalu Txikiko zuzendaria da. Ekonomi zientziak ikasten ditu.



**LORATEGI “BAR”**

Iturriotz, 7 **ARRASATE**  
Tfnoa: 79 04 67

comercial  
san juan


Garibai, 12  
Tfnoa: 79 13 05

**hikein**  
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4  
Tfnoa: 79 13 84

# HAUR ZINEA

UDAZKENEKO  
IGANDETAN





# Arrasatear bat Bosnian

Maidar Egües

**Dani Martin dugu hurrengo lerrootako hizlaria. Kontzientzi eragozpena gainerik kentzeko asmatan joan zen Bosniara baina 4 hilabete beharrean, 6 pasa ditu Trevinje herrian errefuxiatuei laguntzen. Ez ei du nahikoa eta berriro bueltatu da hara. Bertan egonda, gerrak beste aurpegi bat duela esaten du.**

Gehientzat "gerra aspergarri" bihurtu den Yugoslabiako hori gertu-gertutik bizi izan du 25 urteko arrasatear honek. Abentura eta esperientzia berri bat bizi izateko gogoak eraman zuen Bosniara eta baita, berak esaten duen moduan, "kontzientzia eragozpena gainerik kentzeko bide bat zela jakiteak ere". Azken 6 hilabeteak Bosniako Trevinje herrian eman ditu eta tartean hilabete eskas hartu du familia ikusteko.

Urtarrilaren 13an hartu zuen lehen aldiz Bosniarako hegazkina estatuko beste hainbat gazterekin batera.


**— Zein inpresio jaso zenuen Trevinjera heltzean?**

— Oso bitxia. Gerran dagoen herri baten ideia neraman buruan; hara heltzean, dena jan nahi izaten da begiekin, dena jakin nahi izaten da. Pixkanaka-pixkanaka, herri horren egoera zein den konturatu eta norbere eginbeharra zein den ikusten da. Gazte asko joan ginenez, zaila izan zen bakoitzarentzat lan konkretu bat aurkitzea eta askok,


hilabete batzuk egin ondoren, bueltatu egin behar izan zuten. Nik zorte handia izan nuen, hemendik lan konkretu bat baneramalako. Psikologiako karrera bukatu berri dudanez, gizarte sailean ibili naiz lanean.

## TREVINJE

Bosnia-Herzegovinako hegoaldean dago, Dubrovniketik 30 km.tara, ia ia itsasertzean. Gaur egun Trevinje hirian 15.000 lagun bizi dira, hoietatik 7.000 errefuxiatuak dira. Gerra hasi aurretik, Trevinjen 5.000 musulman eta 3.500 kroata bizi ziren gutxi gorabehera. Gerra hasi zenean pertsona horiek alde egin zuten eta etxe horiek errefu-



**raingo etxea berea den galdetzen diezunean hasten dira istorio tristeenak kontatzen".**



Daniren lana, besteak beste, errefuxiatuen informeak egitea da.

xiatu serbioarrek okupatu zituzten.

Dani hirian bizi izan da, serbioarrak dauden lekuan. Trevinjeko Zerbitzu Sozialekin batera egiten du lan. 160 errefuxiatu bizi diren egoitza batean bizi da eta errefuxiatu hauen eta gainontzekoen informeak egitea da bere lana.

**— Zer egiten duzu han?**

— Denetarik egiten dut. Nire lana errefuxiatuekin egotea, euren informeak egitea, euren kezak ezagutzea eta ahal den neurrian laguntzea da, baina beste lan asko ere egiten ditut: Eskolako materiala banatu, eskoletara bazkaria eraman, gidari lanak ere egiten ditut, haurrekin jolas egitea...

**— Gogorra izango da errefuxiatuen informeak egitea...**

— Bai, oso gogorra da baina morboan gehiegi ez sartzen ahalegintzen gara. Gezurra dirudi baina egunero informeak egiten egoteak erabat urruntzen gaitu, hotz bihurtzen gara, istorio berberak entzuten dira etengabe eta azkenean, 3. edo 4. historia entzun ere ez da egiten. Horren kontra burrukan egin behar izaten dut eta "aurrera, gehiago sakondu..." esan behar izaten diot neure buruari. Gainera, kontutan izan behar da gu han atzeritarrak garela; oso zaila egiten zaie ezezagun bati gauza pertsonalak kontatzea. Dena dela, bada galdera kurioso bat: Lehen non bizi zen eta oraingo etxea berea den galdetzen diegunean, orduan hasten dira gauza garrantzitsue-

nak kontatzen, istorio triste-enak.

“Errefuxiatu egoitza horrek geriatrikoa dirudi” dio Danik. Bertan bizi den gehien-goia zaharrak dira, nora joan ez dutenak edo familiarik gabe geratu direnak. “Egoitza hartan ondo daude, agian Trevinjen ondoen bizi direnak izango dira: ur beroa, kalefazioa, elektrizitatea eta janaria dute.” Apurtutako familia asko dago egoitzan. Asko dira bere senarra borrokan dagoelako semeekin bakarrik heltzen diren emakumeen kasuak. Baina kasu tristenak, bakarrik bizi diren 3. adineko pertsonenak dira: 24 orduetan egoten dira euren logetan sartuta irten barik, “Ajedrezean eta kartetan jolasteko gelak dauden arren, ez dira jeisten, bakarrik egoten dira edo batzutan bisitaren bat izaten dute. Bakarrik bizi direnei irritati bat ematen saiatzen gara.”

**“EUROPAK ABANDONATU EGIN GAITU”**

Laster 4 urte beteko dituen gerra honetako protagonisten barruak gorrotoz beterik daude. Alde batetik, gerrate zibiletan gertatzen den bezala, bizilagun, familiarik eta lagun arteko gerra delako eta bestalde, Europak lagundu ez dielako.

**— Zer iritzi dute Europaz?**

— Oso txarra, desepzio handia hartu dute 3 aldeek: kroatek eta musulmanek, Europak zergatik ez dien lagundu galdetzen diete euren buruei eta serbiarrek berriz, errua euren zergatik botatzen dieten galdetzen dute. Gu ondo tratatzen gaituzte, baina gu bezala Kroazian lanean ari direnei harriak botatzen dizkiete. Egia esan, arrazoia daukate: Europako potentziek ez dute laguntza handirik

eman, kontrakoa baizik.

**— Zelan ikusten dute etorkizuna?**

— Oso zaila. Euren iza-keragatik, egoera zailagoa den heinean gogo gehiago botatzen diotela iruditzen zait niri, gogorrago egiten dira. Gainera, serbioak “gerrako gaiztoak” direla esaten da, baina egia esan, ekonomikoki oso gaizki daude, alde guztietatik enbargatuta. Hala ere, horrek gehiago elkartzen ditu.

**— Hango inork nahi ez zuen gerra bat bada, zergatik diraute gorrotoek?**

— Jendea beldur da, ez dira ausartzen benetan pentsatzen dutena esatera. Niri zera gertatu izan zait: 7 edo 8 laguneko talde baten egon eta batek honela esatea, “Musulmanak eta kroatak hil egin behar dira!”, beste guztiek begietara begiratzen dizute “Baina zer esaten ari da hau! Zoratuta dago!” esan nahian, baina ez dira ausartzen ezer esatera.

**18 URTEKO SOLDADUAK**

Eskola bukatu ondoren nora joan ez dutenez, fronte- ra bidaltzen dituzte gazteak. Bosniako iparraldera armak erabiltzen ikastera joaten dira hilabetez.

**— Baduzu harremanik fronteko soldaduekin?**

**J**  
**oan daitezela politikoak! esaten dute frentera borrokatzera doazen 18 urteko gazteek”.**

— Bai, eta egia esan, inork ez du joaterik nahi, ez dute inor hiltzerik nahi eta beldur dira; oso gazteak izaten dira batzuk. Ez dira esatera ausartzen, baina bakarrik daudenean, “Joan daitezela politikoak!”, “Ez dut joan nahi” edo “Politikoez hasi zuten gerra da eta ez dira berau geratzeko gai!” eta antzekoak esaten dituzte.

**— Zuek, laguntzaileok, posizionatzen zarete?**

— Ez; hori galdetzen didaten bakoitzean gauza bera esaten dut: “Hobe gerra bihar bukatuko balitz” eta hori da pentsatzen dudana. Dena dela, gauza batetaz ohartu naiz: gerra guztiei begiratzen badiezu, beti “onek” irabazi dutela dirudi, baina benetan, irabazten dutenek egiten dute historia. Egia esan, serbiarrek gauza beldurgarriak egin dituzte, baina ez dira bakarrik. Informatiboetan gauza horiek bakarrik agertzen dira. Kroatek guztiz suntsitu dute Mostar baina inork ez du ezer esaten. Serbiarrei “txarrak” izatea tokatu zaie: nik bizi dudan egoera dela eta, ulertzen dut euren ikuspuntua, baina jakina, ez dut inolaz ere, egin dutena justifikatzen.

**— Bai, baina serbiarrek egin duten garbiketa etnikoa...**

— Bai, baina Trevinjen dauden errefuxiatu guztiak kroatek eta musulmanek egin duten garbiketa etnikoa dela eta etorri dira. Oso konplikatu da, ez dago inoren alde jarzterik.

**— Serbiarrek badakite zein txarto geratzen ari diren?**

— Bai, kanpotik datozen egunkari eta komunikabide guztiak arretaz irakurtzen dituzte. “Zure herrira zoazenean, esaiezu ez garela hain txarrak, esaiezu egia; ez garela deabruak” esan izan didate Trevinjeko serbiarrek.

Danik, ezagutu dituenak ezagututa, Trevinjera bueltatzea eta lanean jarraitzea erabaki du. Momentuotan Trevinjen dago, ostegunean hilaren 29 alde egin zuen berriz. Errefuxiatuen informe monotonoak egiten jarraituko du eta haur batek plastilina zati bat lapurtzen dionean berarekin hasarretu beharko du. Min ematen dio, baina berak esaten duen moduan, “gerrak halakoxea egin nau: hotza”.



# Istorio bat gehiago

Dusanka da bere izena eta 40 urte ditu. Fedarekin, 13 urteko bere semearekin Danik lan egiten duen egoitzan errefuxiatuta bizi den Mostarreko emakumea da (Serbiarra). Bere senarra musulmana da eta Mostarren dago serbiarren aurka burrukan egiten. Danik ARRASA-

TE PRESSera idatzi zigunean, bere eskutitzarekin batera Dusankarena heldu zitzaigun: Han bizi dituzten krudelkeriak gerturatu nahian, eskutitz hau argitaratzea eskatu digu. Bere istorioa, milakaren artean, bat gehiago besterik ez da.

Uztailerako arratsalde beroa. Granaden ezteandaz dardar egiten du lurrak. Alde guztietan hea, garra eta hautesa. Kerizpetan 40°C daude baina zainetan odola izoztu egiten da. Orduantxe esan zidaten: "Zure semea zaurituta dago. Ez da larria, bizirik irausgo du".

Ospitalera noa korrika. UVko gela rotoan dago eta airea itozgarria da. Odol, zauri ireki eta heriotz usaina dago. Berari begira nago: etzanda dago, lo balezgo bezala. Eskumako besoak zainean, tantaka tantaka, joan doa odola.

Ezkerreko besoak urratuak dauka uhalondotik behera. Ezkerreko hanka igeltsoan. Min jasanezin batek zatitzen dit bularra eta berunezkoak balira bezala sentitzen ditut hankak. Milaka galdera datozkit burura: Zein da gure umek hiltzeko eskulidea duela aste duen hori? Zertarako? Zeinen kontra? Indar guztiak batu eta ez dut negarrik egin. Nire umearen ondoan eseri eta eskutik oratu diot. Badakit koman dagoena, baina bururatutako guztia esan diot, animatze aldera:

"Egin borrokan, umek! Egin borrokan zure bizitzaren alde! Gaztea zara, 17 urte baino ez dituzu. Beso bat galtzea ez da ezer eta beso bakararekin egingo zara gizon. Beharrik izanez gero, neu izango naiz zure ezkerreko besoak. Zuri laguntzeko nago hemen. Ezizu borrokan, seme, arren, ezizu nigatik, zuzatik eta zure bizitzarengatik. Gerra ez da betiko eta gorea ere ez; amaituko dira. Beharrean dagoen jendearekin laguntzen dion jendea badao munduan eta zuri ere lagunduko digute. Aurkitu indarra zure baita eta bizi! Traus bizirik etxera itzultzeko, aita zain duzu eta. Harro dago zutaz. Anaia txikia zain duzu. Andregaiak ere zain".

Lau egun koman. Lau egun itzaropen eta beldurrez, eta orduan, amaiera. Galdu egin nuen. Dena geratu egin zen nire baitan. Harri eginda geratu nintzen. Ez dut negarrik egin. Berba barik agurtu dut semea.

Eta lurrak dardar egiten du oraindik. Granada sehiagok apurtzen dute gure txikiarentzat? Ihes egin beharra dut, salba daitekeena salbatu. Segurtaun ezagatik beldurrez beteta utzi dut nire libotzeko Mostar. Ezagutzen ez dudak lekura noa mutikoarekin. Nori hartuko ote nau? Nori emango ote dit eskua eta laguntza? Etxea utzi dut, baina aurkituko ote dut besterik? Ez dut aste.

Dusanka

# LAURA

**UDAZKENEKO  
MODARIK  
EROSOENA**

- Puntuzko diseinuak
- Beroki eta amerikanak
- Aurtengo modan prakek jartzen dute marka



**HAURDUNALDIRAKO  
ERROPAK**

**TAILA BEREZIAK**

Erdiko kalea, 30  
Tfnoa: 79 05 80  
ARRASATE

**Orain ARRASATEN...**

# egizabal

**Oinetakoak - Poltsak**

Ferrerias,9

**UGARAN  
jatetxea**

## Z E R N A H I A G O ?

## Mari Jose Gonzalez

### Basko-tour bidai agenziakoa



- **Nora bidaliko zenuke "Roldan" bidai eske etorriko balitz?** Tibetera, ea ideiak hozten zaizkion.
- **Arrasatearrek, mendia ala hondartza?** Dударik gabe, hondartza.
- **Hotela, apartamentua ala kanpina?** Hotela, ero-soagoa delako eta leku batetik bestera mugitzea gus-tatzen zaidalako.
- **Jainkoak laguntzen dio goiz jeikitzen denari?** Baietz uste dut, norbere burua ondo antolatuz gero.
- **Euskadiko jairik girotsuenak?** San Ferminak, beti primeran pasatu izan dut eta.
- **Non egingo zenituzte zeure ezkontzarako argazkiak?** Ez nuke ezkontzarik egingo.
- **Bozkatzeko asmorik?** Bai, eginkizun bat da eta.
- **Telebistako aurkezle bat?** Arturo Perez Reverte.
- **Rollings-ak ala Beatles-ak?** Beatles-ak, erromantikoagoak dira.
- **Ehiza kirol bat da?** Bai, jakina, betebeharreko arau batzurekin besteak bezala, kirola da.
- **Letrak ala Zientziak?** Zientziak, letrak betidanik gorrotatu izan ditut.
- **Joango zinateke hiri handi batetara bizi izatera?** Bai, erraz moldatuko nintzateke.
- **Badago tarteko gezurrik?** Ez, baina bai egia osoa ez kontatzea.
- **Zer falta da Arrasaten?** Antzoki on bat.
- **Zer prestatzen du amak ondoen?** Mota guztietako barazkiak, kardoak batez ere.
- **Bazara "Canal +"eko bazkide?** Ez, nahiago dut zinera joatea.
- **Indurain ala Lejarreta?** Lejarreta, "Peña"ko bazkide naiz eta.
- **Badago miraririk?** Ez, baina tranpa eta trikimailuak bai.
- **Ruandarako irtenbide bat?** Ez dakit.
- **Zer da egunkari batetan garrantzitsuena?** Iritziko atalak edukitzea.
- **Txikitan gehien entzundako istorio ala kondaira?** "Manolo suhiltzailearena".
- **Tabako beltza ala gorria?** Beltza.
- **Baduzu puentina egiteko asmorik?** Gustatuko litzaidake baina beldurra ematen dit.

## LABURRAK

## Gerontologi laguntzaile ikastaroa

ICTEk, Hirugarren Adi-nerako Institutu Komunitarioak, gerontologiako laguntzaile ikastaroa antolatu du. Ikastaro hau inolako espe-rientziarik izan ez arren arlo honetan hezitzeak interesa dutenei eta pertsona nagusien zainketa eta ardurarekin harremana daukaten profesionalei zuzenduta dago. Ikastaroaren bitartez hirugarren adinaren esparruan eragiten duten osasun, gizarte eta aspektu psikologikoak landu nahi dira, eta baita adinekoen zainketa eta arretarako prestakuntza profesionala eskaintzea ere. Gizarte, osasun, psikologia eta giza arloak landuko ditu ikastaro honek.


150 ordutako iraupena izango du eta klase teorikoak praktikoekin tartekatuko dira. Ikastaroa azaroan hasi eta maiatzean amaituko da: aste-arte eta ostegunetan izango dira klaseak, 17.30etatik 20.00etara. Matrikularen prezioa 9.000 ptakoa da eta hile-ro beste 9.000 ptako kuota ordaindu beharko da.



LEHEN

## Gorputza moldea daiteke

Gaur egun, Ramon Aginaga Doktoarek, Zirujia Estetika Elkarteko partaideak, **Miren Garairen** Zentruan egiten duen **Lipoeskulturak** emaitza harrigarriak lortzen ditu.



ORAIN

### Erabiltzen diren beste teknika batzuk:

- TRIPA ERABAT KENTZEA
- BEGIETAKO POLTSAK KENTZEA
- BULARRAK TXIKITU EDO HANDITZEA

**Miren Garairen Estetika Zentrua** ☎ 79 96 90

*Ebakuntzak Gasteizko Esperanza eritetxean egiten dira.*

# Maltzaga-Urbina saskibaloitza taldea

**Txus Brizuela**

31 urte

Entrenatzailea

Gasteiz



**Jorge Fernandez**

22 urte

1,90 m.

Eskolta

Arrasatearra



**Ander Txintxurreta**

21 urte

1,92 m.

Hegalekoa

Zumarragakoa



**Andres Gutierrez**

20 urte

1,92 m.

Hegalekoa

Atxabaltarra



**David Scott**

24 urte

1,96 m.

Hegalekoa

Indianakoa (EEBB)




**Eneko Alvarez**

18 urte

1,90 m.

Hegalekoa

Arrasatearra



**Albaro Coca**

23 urte

1,82 m.

Antolatzailea

Donostiarra



**Xabier Otxoa**

24 urte

1,80 m.

Antolatzailea

Gasteizkoa



**Aitor Viteri**

27 urte

1,82 m.

Antolatzailea

Gasteizkoa



**Iñaki Arrue**

26 urte

2 m.

Pibota

Gasteizkoa




**Iñigo Pastor**

20 urte

2,05 m.

Pibota

Irundarra



**J. Ramon Garay**

27 urte

1,99 m.

Pibota

Arrasatearra



**Gerardo Mondragon**

24 urte

1,92 m.

Pibota

Arrasatearra



**Igor Urisabel**

21 urte

2 m.

Pibota

Bergararra



**Jabi Zurbano**

26 urte

2.entrenatzailea

Arrasatearra



**Garikoitz Ibabe**

22 urte

Delegatua

Eskoriatzarra



**Plus Ultra  
taberna**

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 20 57

**TXOKO  
TABERNA**  
Eure berezitasunak pintxo eta  
mokau gozoak

# Arrasateko taldeek 94-95 denboraldia aurrean

**Maltzaga-Urbina** saskibaloitza taldeak datorren larunbatean hasiko du Eba liga, aurrendenboraldi ganorazkoa egin eta gero, Txus Brizuelaren mutilek larunbatean erakutsi beharko dute zeregitoko gauza diren, arratsaldeko 6etan Maltzaga-Urbina eta Forun de Valladolid izango ditugu aurrez aurre Iturripen. **Arrasateko eskubaloitza** taldearentzat bestalde, urriaren 16a izango da egun garrantzitsua, lehen mailan jokatzeko duen taldeak Valle de Trapaga izango du aurrean denboraldiko lehen norgehiagokan. Talde horretan hiru aurpegi berri daude: Ibon Enbil, Ibon Azkue eta Jokin Esnal; Eskola Politeknikoan ikasten dute eta Zumarragoak dira. Eskubaloitza taldeak urriaren 12an egingo du aurkezpen ofiziala. **Rugby**-ari eutsiz, hauek oraindik aste batzuk izango dituzte denboraldia hasi aurretik, urriaren 23an Bilbon jokatu duten neurketan Universitarios taldearen kontra neurtu beharko dituzte indarrak. Datorren zapatuan, adiskidantzazko



Urbina-Maltzaga taldekoak ikusiko ditugu Iturripen, larunbatean.

partidua jokatu dute Eibar taldearekin Garagartzako zelaian arratsaldeko 4.30etan. **Construcciones Brues-ek** lehen nazionalen jokatzeko duen futbito taldeak urriaren 9an buru-belarri sartuko da denboraldian. Lehen partidua Iturripen jokatu du eguerdiko 12etan eta aurrez aurre Arrasateko taldea eta Promociones Madaias izango ditugu. Arabako 2. mailan jokatzeko duen taldea bestalde, larunbat honetan hasiko da Alegria taldearen kontra jokatu duen neurketarekin. Musakolan jokatu da arra-

tsaldeko 5etan. **Mondra 3. mailako** futbol taldeak irailaren 4an hasi zuen denboraldia, beraz, dagoeneko 4 neurketa jokatu ditu. Emaitzei dagokienez denetik ezagutu dute: porrotak, berdinketak eta baita garaipena ere. Datorren domekan "Derbi" interesgarria jokatu dute Aloñamendi taldearen kontra. Neurketa igandean izango da arratsaldeko 5etan. **Mondrako emakumeek** ere badaramate hainbat neurketa jokatu; hurrengo erronka Zumarragaren kontra izango dute zapatuan. Zorte on guztio!

## PENALTIAK

• **Igandean 1. eta 2. urteko jubenilentzat San Migel XIII. txirrindulari lasterketa** jokatu zen Aretxabaletan. **Guztira 65 txirrindularik hartu zuten parte eta Jose Migel Elizburu Dorleta-ko Ama taldeko txirrindulari atxabaltarra helmugaratu zen lehen postuan. Txirrindulari gazte honek lehen postua eskuratu zuen eta baita mendiko saria ere. Taldekako saria Hirurok taldearentzat izan zen.**

• **Joseba Larrinaga 26 urteko korrikalari atxabaltarrak elbarrituen munduko maratokia 2. postua lortu du 2 ordu 40 minutu eta 30 segunduko denbora eginez. Irabazlea Jabier Conde basauritarra izan zen. Munduko maratokia igandean jokatu zen Berlinen. Bestalde, esan beharra dago, Espainiako txapelketetan 1.500 metrotan eta 5.000 metrotan lehen postua lortu zuela Josebak.**

## EMAITZAK

### Futbola

3. maila: Mondra 3 - Tolosa 2  
Emakumeok: Mondra 3 - Lagun onak 2  
Jub ohorezko liga: hamaika bat 0 - Mondra 1  
2. erregionala: Eibartarrak 2 - Mondra 1  
Jub 2. maila: Mondra 4 - Aloñamendi 1  
Kadeteak 1. maila: Idiazabal 2 - Mondra 2  
Kadeteak 2. maila: Bergara 1 - Mondra 1  
**Hurrengoak:**  
3. maila: Aloñamendi - Mondra  
Emakumezkoak: Zumarraga - Mondra

### Pilota

Euskal liga lehen fasea:

Nagusiak eskuz binaka: Olartzun 5 - Arrasate 22  
Jubenilak eskuz binaka: Anorga 18 - Arrasate 17  
Jubenilak eskuz binaka: Zumarraga 22 - Arrasate 17  
Kadeteak: Arrasate 22 - Lazkao 17

### Hurrengoak:

Afizionatuak eskuz binaka: Arrasate - Ordizia, Iturripen  
Jubenilak eskuz binaka: Arrasate - Soraluze, Iturripen  
11etan.  
Kadeteak: Tolosa - Arrasate.

### Saskibaloia

Maltzaga-Urbina - Forun de Valladolid, Iturripen 6etan.  
Larunbata.

# Arrasateko OSASUN GIDA

Datorren hilean berriz zuekin!!  
Apunta zaitez 77 08 15 Tfnoan.

Arantxa Uriarte

“Mitoen sinfoniarako” haurrak prestatzen

Azaroaren 20an, 2000 haur bilduko dira Anoetan On Joxemiel Barandiarani omen eginez, haur kantata bat abesteko. Parte hartuko duten 43 abesbatzen artean, Arrasateko bi daude: San Viatorreko “Ortzadar” eta “Goikobalu Txiki”. Arantxa Uriarte, Ortzadarreko zuzendaria mintzatu zaigu honen gainean.



Beraz, federatu egin ginen eta orain, parte hartu ahal izan dugu.

— Zenbat abesbatzek hartuko duzue parte Haur Kantata honetan?

— Guztira, 43 abesbatza. Arabako eta Bizkaiko abesbatza batzuk izan ezik, Gipuzkoarrak dira beste guztiak. Guztira 2.000 ume.

— Arrasateetik bi abesbatza besterik ez zoazte. Zergatik Goikobalu Txiki eta Ortzadar, eta ez beste batzuk?

— Gipuzkoako Abesbatza Federazioak deialdi bat egin zien federatuta zeuden haur abesbatzei, eta printzipioz, federatuta zeudenetik gustokoen zituztenak aukeratu zituzten. Dena dela, oso aukeraketa “sui generis”a izan da. Ortzadar, ez zegoen federatuta baina joan den urteko Errenderiako Gabon Kantuen lehiaketan Abesbatza Federazioa gudan fijatu zen eta kantata honetan parte hartzeko deitu ziguten.

— Nondik sortu da “Mitoen Sinfonia” hau?

— Federazioak omenaldi bat egin nahi izan zion On Joxemiel Barandiarani eta Eskuderoi omenaldi honetarako obra bat egitea eskatu zion. Eskudero, obra orijinala egin nahian, Euskal Herriko mitoei buruzkoa sortu zuen, hau da, “Mitoen Sinfonia”.

— Zein berezitasun eta zailtasun dauzka obrak?

— Oso obra orijinala eta zaila da, hurrek sorginen ahotsa imitatuz abestu behar dutelako. Haurrentzako musika garaikidearekin lan

••••••••••  
 “Umeentzat  
 oso erronka  
 garrantzitsua da  
 kantata hau”

egitea esperientzia berria da eta egia esan, eurentzat oso erronka garrantzitsua da hau. 4 zati-tan banatzen da: lehenengoan eskaintza bat egiten zaio On Joxemiel; ondorengo 3 zatiak Lamina, Tartalo eta Mateo Txistu pertsonaien inguruko-

ak dira.

— 2000 haurrekin zelan entsaia daiteke?

— Abesbatza bakoitzak bere aldetik egiten ditu entsaioak baina larunbatetan Ortzadarreko Goikobaluko haurrekin biltzen gara. Bestalde, urriaren 8an entsaio orokorra izango dugu Zarautzen: han, inguru honetako abesbatzak bilduko gara eta gero, azaroaren 5ean, Anoetan, 2000 haurrak bilduko ditugu entsaio “orokor-orokorrerako”. Zuzendaria Juanjo Mena izango da.

— Jendeak badu ekintza handi honen berri?

— Propaganda egiten hasi gara... eta baita dirua eskatzen ere! Egia esan, jaialdiak 11 miliotako aurrekontua du gutxigorabehera. Oraingoz, Gipuzkoako Abesbatza Federazioak hartu ditu beregain gastu hauek eta laguntza behar dugu. Kantata zoragarri hau ikustera joan nahi duen edonor gugana etor daiteke sarrera eske.

LABURRAK

Argazki lehiaketa

Gazte Zerbitzuak eta ASA Taldeak antolatutako “Gazteak Naturan” Argazki Lehiaketarako epea zabalik dago oraindik. Ahaztuta bazenituen, hona hemen oinarriak: Bi kategoria daude, lehena Deba Garaiko 14-20 urte bitartekoentzat eta bigarrena 21-35 urte bitarteko edozeinentzat.

Gaia, “Gazteak Naturan” da eta bi modalitatetan har dezakezu parte: Zuri-beltzean nahiz koloretan. Argazkien formatoa libre da lehenengo kategorian; bigarrenean, argazkiek formato konkretu bat bete behar dute: gutxienez 18x24 eta gehienez, 30x40. Lanak aurkezteko epea urriaren 14an amaitzen da eta erabakia urriaren 21ean emango da ezagutzera.

Iokin Zaitegi lehiaketa

AEDk antolatuta, zabalik dago Iokin Zaitegi VIII. Itzulpen laburren sariketako epea.

Aurtengo gaia, “Irudi Bidezko Komunikazioa 2000. urtean” da. Munduko edozein hizkuntzatatik -gaztelaniatik izan ezik- itzulitako idazlanak aurkez daitezke lehiaketara. Jatorrizko testuak 1991-1992-1993 eta 1994 urteetan argitaratu izan behar du eta itzulpenak orijinalak eta inoiz argitaratu gabeak.

Lanak, azaroaren 4a baino lehen aurkeztu behar dira AED elkartean.

URRIN  
EDARITEGIA

Etxeko janari bereziak

UGARTE

Industri  
hornidurak

Arrasate pasealekua  
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00  
Telefax: 793412





Emanaldiak Amaia antzokian izango dira.

## Haur Zinea udazkenean

**Adi gaztetxo!** Udazkeneko igande arratsalde euritsuetan nora joan ez baduzu, Arrasateko udaleko Gazte Zerbitzuak aukera bat luzatu nahi dizu.

Maiatzean eta apirilean egin zen bazala, urrian, azaroan eta abenduan haurrei zuzendutako pelikulak izango dira ikusgai Amaia Antzokian. Pelikula guztiak arratsaldetako 5etan izango dira eta sarrerak 200 ptatan salduko dira.

### Kartelera

**Urriak 2:** "Atrapado en el tiempo"

**Urriak 9:** "Ipar haizeko kondaira"

**Urriak 16:** "El golpe del menhir"

**Urriak 30:** "Navigator: una odisea en el espacio"

**Azaroak 6:** "Todos los perros van al cielo"

**Azaroak 13:** "El hotel de los fantasmas"

**Azaroak 20:** "El rey sol"

**Azaroak 27:** "El reino del oso polar"

**Abenduak 11:** "Solo en casa II"



- Ipuina
- Poesia
- Bertso-Paperak

Azaroaren 4rako aurkeztu behar dira lanak.

## "Arrasate 94" lehiaketak

**Aurten ere,** AEDk komiki, argazki, diapositiba, bideo, ipuin, poesia eta bertso-paper lehiaketak antolatuta ditu gazte eta helduentzat. 14-18 urte bitarteko gazteek ipuin, poesia eta bertso-paper modalitateetan parte hartu ahal izango dute. Ipuinek, gutxienez 2 eta gehienez 5 foliotako luzera izan beharko dute. Poesiari dagokionez, konposaketa eta errima libreak izango dira eta asko jota, 120 lerrotakoak beharko dute izan. Bertsoei dagokionez, gutxienez 6 eta gehienez 12 bertso egin beharko ditu partehartzailerako bakoitzak.

Helduek, modalitate hauetaz gain, bideo, komiki, argazki eta diapositiba lehiaketetan ere parte hartu ahal izango dute. Komikiak gutxienez 4 orrialde eta gehienez 6koak izan beharko dute; argazkiei dagokionez, zuri-beltzez nahiz koloretakoak aurkez daitezke; diapositiba modalitatean, gutxienez 3 eta gehienez 5 aurkeztu ahal izango dira. Lan guztiak, azaroaren 4a baino lehen aurkeztu behar dira AED elkartean.

### LABURRAK

#### Ingelesko ikastaro intentsiboak

CIM Hizkuntza eskolako ingelesa era erraz eta azkarrean ikasi ahal izateko sistema bat jarri du abian. Sistema hau, euren lanorduegatik ingeles klaseetara maiztasunez joan ezin dutenei zuzenduta dago. Sistema honek orainarte izan duen harrera ona dela eta, aurten ere antolatuta egin da.

Kurtso hauen izena, "Inmertsio osoko ingeles ikastaroak" da eta profesional, enpresari eta exekutiboan lan egoeran oinarriturik sortutako kurtsoak dira. Astebeteko iraupena izango dute eta bereziki horretarako prestatutako Mendiolako baserrian izango dira. Aste horretan zehar, ingelesarekiko kontaktua erabatekoa izango da eta bertan egingo diren ekintzak, aurrera begira enpresarietara euren lanean izango dituzten egoeretan oinarrituko dira.

Kurtso hauek irailetik uztailean bitartean emango dira eta maila ezberdinak antolatuko dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu Ahizke - CIMera; telefonoa 79 98 66 da.

Denbora faltan bazabiltza, orain ez daukazu ingelesa ikasi gabe geratzeko aitzakiarik.



Olarte, 30 etxabea.  
Tfnoa: 79 77 11  
Faxa: 79 77 11  
ARRASATE  
Postakutxa: 118



### JOSU TXOKOLATEGIA KAFETEGIA

Elkano, 25  
ARRASATE  
Tfnoa: 77 03 66



Artes y Oficios eskola, 1927an.

drauetarrei 1927an atera zieten erretratu hau. Asko dira eta denen izenik jakiterik lortu ez dugun arren, hor doaz, goitik eta ezkerretik eskumara, ezagutu ahal izan ditugunak:

**Karmelo Madinabeitia, Amadeo Labajos, On Antonio Armengou** irakaslea, **Victor Bedia, Emilio Inda, Amador Portillo** eta **Paulo Zumelaga.**

**Jesus Otadui, Gregorio Sanpedro, Franzisko Gonzalez, Egidazu, Satur**

**Pagoaga** eta **Jesus Amozarrain.**

**Pedro Bolinaga, Esteban Altuna, Donato Arregi, Santos Sologaitza, Jesus Letona, Martin Iturbe, Mateo Murua** eta **Norberto Jauregibarria.**

**Pedro Vitoria, Agustin Arregi, Juan Eraña, Jose Mari Uranga, Rikardo Gorosabel, Joakin Garmendia, Joseba Sanpedro, Oskar Labajos, Garaite, Jesus Elkoro, Lazaro Berezibar, Eustakio Guri-**

**di, Jabier Arregi** eta **Gabino Vitoria.**

Ezezaguna, **Juan Mari Sanpedro, Jose Mari Arriaran, ezezaguna, Fakundo Sanpedro, Juan Azkoga, Luis Heriz, Juan Mondragon, ezezaguna, Juarez, Jose Amozarrain, Luzio Uriona, Joseba Uribetxerria** eta **Zezipio Altuna.**

**Agapito Arana, Felipe Elortza, Pedro Zumelaga, Eskudero, Pako Orobengoa, Manolo Amozarrain** eta **Jazinto Elortza.**



**iteri** eskolaren egoitzan zegoen "Escuela de Artes y Oficios" delakoa, eta eskola hartan ibili ziren mutiko mon-



Doctor Bañez, 1 behean, San Andres auzoan  
 ASTELEHENETIK OSTIRALERA ARTE  
 Goizeko 9etatik 1a arte

**ELEKTRONIKA  
 ARTIKULUEN  
 SALMENTA**



J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE



**SALBURUARA**  
*joan edo gogoz*  
*bertan izan zineten*  
**ARRASATEARROI,**



# **ESKERRIKASKO**



• AIPUA •

*Esperientzia fda gure hutsegiteei ematen diegun izena.*


WILDE

• JEROGLIFIKOA •



- Nork erosi du baserria?

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Jose Mari, AEDko lehendakari-ohia. 8. Pluralean, txanodun jaka mota. 10. Eguzkiaren jainko egiptiar. 11. Arsenikoa. 12. Errepikatuz, hodi. 13. Esate baterako. 16. Jantzi luze eta zabala. 17. Gipuzkoako udala. 18. Minerale. 20. Fleming, "007" sortu zuenaren izena. 21. Garrak.

**Bertikalak** 1. 42 Km. inguruko lasterketa. 2. Neke. 3. Kolpatu. 4. Zorabio. 5. Ia. 6. Nor pluralean. 7. Garbituak. 9. Etxe sarrera. 14. (Ald.) Betsein. 15. Garbai. 19. Eusko Alkartasuna.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Pentsatu gabe egiten dituzu gauzak. Horrela normala gaizki egitea.

**Taurus** Benetan uste zenuen haurrak Paristik etortzen zirela?

**Gemini** Praka beltzak jatzten dituzunean, karramarroa dirudizu.

**Cancer** Berandu etxeratzen zarela eta besteak baino gehiago zarela uste duzu, ezta?

**Leo** Larregi erretzen duzu. Zigarroak neurritz erre behar dira.

**Virgo** Gripearean aurkako txertoa hartzea komeni zaizu.

**Libra** Datorren astebukaeran aspaldiko bi lagun ikusiko dituzu.

**Scorpio** Maritxu bezperan josteko makina apurtuko zaizu. Lehenago josi soinekoa.

**Sagitaris** Arkatzari punta atera eta ikasten hasi, ordua da eta.

**Capricorn** Dutxan ederto abesten duzu baina dutxatik kanpo...

**Aquarius** Zure bizitzari errepa-sutxoa egin eta gurasoek garrantzia izan dutela ikusiko duzu.

**Piscis** Errealitatetik kanpo bizi zara. Jeitsi ilargitik.

94-95 eko IKASTAROAK

Goizez  
(9etatik  
aurrera):

**Iarrulana  
Sukaldaritza  
Tapizak eta makramea...**  
e. a.

Arratsaldez  
(3~30etatik  
aurrera):

**Joskintza  
Bolilloak  
Psikologia**  
e. a.

**Enplegurako prestakuntza,  
geriatria, elektrizitatea, e. a...**

Gauetz  
(6~30etatik  
aurrera):


**Unibertsitarterako sarbidea  
Enkuadernazioa  
Sexualitate ikastaroa**  
e. a...



Ikastaro hauen eta beste batzuen ordutegia eta prezioak jakiteko, dei egin:

famili eta gizarte heziketarako zentrua  
gipuzkoa-Donostia kutxaren gizarte-ekintza

Santa Teresa, 12  
Tfnoa: 79 04 59  
ARRASATE



## TELEBISTAREN TXOKOA

# "Ibilixan Dabilena": Euskal abenturazaleak ATBn

**on Aldanondo.** ATBko teknikoak zuzendutako eta **Eneko Aranguren**ek aurkeztutako programa hau, Arrasateko abenturazaleen gozamina izango da. Uda osoan zehar graba-

tutako programa hauetatik, Euskal Herriko abenturazale amorratuena igaro dira: Antartidan ibilitakoak, "mountain-bike" bizikletaz sekulako bidaiak egin dituztenak... benetako "Indiana

Jones"ak! Elkarrizketaz eta argazki edo bideo emanaldiz osatzen da programa eta orduerdiko iraupena izango du. Ibilixan Dabilena ostegunero emitituko da 21.30etan.



## KOMIKIA



## PROGRAMAZIOA

**3 Astelehena**

20.00, 20.30, 21.00etan  
**Berriak**  
21.30etan  
Mondrasport

**4 Asteartea**

13.30etan  
Mondrasport errep.  
20.00, 20.30, 21.00etan  
**Berriak**  
21.30etan  
ATBketan

**5 Asteazkena**

13.30etan  
ATBketan errep.  
20.00, 20.30, 21.00tan  
**Berriak**  
21.30etan  
**Bakarka.**  
Gonbidatua: Unai Iturriaga  
bertsolaria.

**6 Osteguna**

13.30etan  
Pareak Jokuan errep.  
20.00, 20.30, 21.00etan  
**Berriak**  
21.30etan

**Ibilixan Dabilena: Eneko Aranguren**ek aurkeztutako abentura-saio berria. Gonbidatua: Javi Tramon; Gambia bizi izandako esperientziak eta abenturak kontatuko dizkigu.


**7 Ostirala**

13.30etan  
**Ibilixan Dabilena** errep.  
19.45etan  
**Kukaratxa Motel**  
20.30 eta 21.00etan  
**Berriak**  
21.30etan  
Astebete. Aurkezlea: Xabier Ibarzabal

**8 Igandea**

21.00etan  
Mondragol

## SOLUZIOAK



**EGVZKiGRAF**

**Grafikagintza. Tipografia.  
Offset industrialia**

Aretxabaletako industrialdea, F-0-4 Tfnoa: 79 18 44 - FAX: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

Familiak.  
**Jergifitakoa:**  
19. EA.  
7. Ikuziak 9. Ate. 14. Nimi. 15. Damm.  
ra. 3. Jo. 4. Irabio. 5. Kasik. 6. Ak.  
**Bertikalak:** 1. Maratol. 2. Unadu-  
20. Jan. 21. Suak.  
bidetz. 16. Tunika. 17. Oto. 18. Mea.  
rakak. 10. Ra. 11. As. 12. Tu. 13. Adi-  
**Horizontalak:** 1. Mujika. 8. Ano-

**Etxebizitzak**

- **Gatzagan jatetxea alokagai** Tfnoa: 71 51 23.
- **Lagun bila nabil** Arrasaten alokatzeko pisu bat aurkitzen hasteko. Tfnoa: 79 00 27.
- **2 pertsona behar dira** Deustun pisua osatzeko, logela konpartitzeko prest. Tfnoa: 79 48 46.
- **Pisua alokatzen da** Zabalotegi kalean (Bergaran) Tfnoa: 76 58 91.
- **Pertsona bat behar da** Donostian pisua konpartitzeko. Tfnoa: 78 13 59.
- **Neska batentzako logela** bat daukagu (sukaldera sartzeko eskubideaz). Tfnoa: 79 58 22. Dei egin eguerditan edo gauetz.
- **Bilbon pisu bat** osatzeko mutil bat behar da. Tfnoa: 79 14 71.
- **Donostian, zentruko ikasle-pisua** osatzeko neska behar da. Banakako gela. 15.400 pta. Tfnoa: 77 00 29 (goiz partean daituta hobe).
- **Donostian ikasle pisu** batean, gela bat libre daukagu alokatzeko. Interesatua bazaude, dei egin 79 33 58ra.
- **Ikasle pisu batean** logelaren bila nabil. Arrasaten edo Aretxabaletan. Tfnoa: 39 83 73. De egin asteburuetan.
- **Bi lagunentzako txokoa** dugu Deustuko pisurik onenean. Deitu berehala, beste norbait aurreratu baino lehen. Tfnoa: 71 42 10 (Aitziber). Gauetz.
- **Bere etxean ikasle bat** hartuko lukeen familia bat behar da. Tfnoa: 64 08 76. 8'00etatik 10'00etara.
- **Langile batek etxebizitza behar du** alokagai Arrasaten. Tfnoa: 88 25 71.

**Lana**

- **Larunbat arratsaldetan** "kostes"eko klase partikularrak behar dira. Tfnoa: 79 93 52.
- **Ingeleseko klase partikularrak** ematen dira. Profesionalitatea eta esperientzia zentro akademikoan. Tfnoa: 79 28 98.
- **Maila guztietako ingelesezko klaseak** ematen dira. Esperientzia zentru akademikoan. Tfnoa: 79 28 98.
- **Ingelesko klaseak** ematen dira. Talde txikiak, maila guztiak. Tfnoa: 79 09 11.
- **OHOko klaseak ematen ditut** kurtso osoan zehar (zure etxean emateko prest nago). Tfnoa: 79 66 91. Gloria.
- **Klase partikularrak** emango nituzke: kontabilitatea (kostek eta sozietateak), estatistika, OHO eta BBB. Tfnoa: 77 04 82. Amparo.
- **Emakumea prest** pertsona nagusiak zaintzeko. Egunez edo gauetz. Tfnoa: 79 26 47.
- **Klaseak ematen ditut:** Matematika, kontabilitatea eta matematika finantzieroa. Tfnoa: 77 00 23. Gloria.
- **Esperientziadun estetizista** naiz eta lan bila nabil. Dei egin 79 98 20 tfnora. Aitziber.
- **Esperientziadun estetizista** naiz eta etxeetara joanda lan egiten dut. Tfnoa: 79 98 20. Aitziber.
- **Kirol denda batean lan egiteko** mutil euskalduna behar da, 20 urtetik gorakoa. Interesatuek bidali curriculum vitae-a 259 posta kutxilara lehenbaitlehen.
- **Neska eskaintzen da** umeak zaindu eta etxezko lanak egiteko, edo laguntzaile gisa taberna baten, jatetxean sukalde laguntzaile, pratelak garbitu... Tfnoa: 79 96 10 / 79 72 12.

**Salerosketak**

- **Negutegi edo inbernadero** bat saldu nahi nuke. Tfnoa: 79 52 80.
- **"CANON EOS-650" argazki kamara** saltzen dut. Prezio ezinhobean. "35-70 objektiboa" barne. Tfnoa: 79 23 60. Niko.
- **la berria dagoen akordeoia** saltzen dut. 120 baxu. Beltza. Tfnoa: 79 80 91.
- **PUCH Condor ziklomotorea salgai.** Egoera onen. Tfnoa: 79 66 92. Juan.
- **Akordeoi kromatikoa** saltzen dut. BIGINI markakoa eta 120 baxukoa. Tfnoa: 79 91 30. Nerea.
- **OPEL VECTRA (SS-AH) salgai.** 32.000 Km. ditu. Tfnoa: 79 62 85.
- **Eskiatzeko ekipoa salgai:** 1,80m. etako DINASTAR markako tablak. LOOK markako fijazioak eta bastoiak. Prezioa: 15.000 pta. Interesatzen bazaizu dei egin 79 17 96 tfnora.
- **Salgai:** - PHILIPS telebista 20 hazbetekoa. - 2 radiador FAGOR programadoreaz. - Teklatu-organoa LOWREy. Oso merke. Tfnoa: 79 82 47. Gauetz.
- **Alarma sistema bat,** denda edo taberna baten-tzako salgai. Tfnoa: 79 53 18. 70.000 Pta.

**Denetarik**

- **Lanegunetan Elgoibartik 3ak** aldera igarotzen bazara, eta kotxean birentzako tokia baduzu, deitu 79 32 56-ra. Patxi. (Gastuetan parte hartuko dugu).
- Egunero Bilbora joateko kotxe baten bila nabil (Gasolina erdibana). Tfnoa: 79 13 77. Juanjo.
- **Jendea behar dut** asteartetan eta ostegunetan goizeko 7'30etan kotxez Donostiara joateko. Tfnoa: 79 09 11. Garbiñe.

**Aste Gazte**

**Lana**

• Donostiako Udalak lanpostu hauen deialdia egin du: 1. mailako ofizial bi, artikuntzako langile bi, goi mailako hiru teknikari, geografo 1, injineri industrial teknikari bat, erdi mailako teknikari bat, gizarte-laneko bederatzi teknikari, gizarte ongizate erdi mailako teknikari bat, itzultzaile bi, digitalizazio kartografia teknikari bat, hiru obra-ikuskatzaile, zazpi merkatu-zaintzaile, telefonari bat, hamar agente lehena, basozain bi.

**Bekak**

• Kanpo-arazoetarako ministeritzak 95-96 ikasturtean zehar Noruegan, Italian zein

Herbereetan. ikasketak egiteko bekatarako deialdia egin du. Epea: abenduak 16.

• Kanpo-arazoetarako ministeritzak 95.eko udan Noruegan ikasketak burutzeko bekaren deialdia egiten du. Epea: Abenduak 16.

**Ikastaroak**

• "Urtxintxa" atsedendiko hezitzaileen eskolak 94-95 ikasturterako, honako ikastaro hauek antolatu ditu asteburuetan burutzeko: a) begirale ikastaroa, b) zuzendari ikastaroa, d) gizarte dinamizatzailea, e) ingurugiroko heziketa. Betebeharra: aisialdia lan egina izana edo esperientziaren bat izanaren ziurtagiria. Epea: urriak 14.

• "Tronconiz Santacoloma Fundazioak", adierazpena eta sormena hezkuntzan ikastaroa antolatu du. Hezkuntza sortzailea, adierazpena, jolasa, drama, adierazpide dinamikoa, musika bidezkoa eta psikomotorea. Epea: azaroak 7.

• Gerontologiako laguntzaile ikastaroa arratsaldez. Astean bi egun, azarotik maiatzera. Profesionalei zein inolako esperientzia ez dutenei zuzendua. Epea: urriak 26.


**Lehiaketak**

• "Donostia Hiria" literatur sariak 1995. Euskarazko ipuin XVII. edizioa, euskarazko antzerkia VI. edizioa, gaztelaniazko ipuina XXXVII. edizioa eta azkenik, gaztelaniazko antzerkia VI. edizioa. Epea: azaroak 15.

**"Gazteak ginen. Ez genuen hil nahi, baina, heriotzarengandik ihes egitearren, ez geunden esklabutza onartzeko prest."**


**"LA MUJER HABITADA"**

**GIOCONDA BELLI**



**Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65**


IN  
FRAGANTI



Ane Gabarain • Idoa Sagarazu • Olatz Beobide




zuzendaritza: EDI NAUDO



# L a g u n a

*Ikustea maitatzea da*



RENAULT

*Zure laguna MECAn daukazu*

*Zatoz probatzera*